

**18/2018 TXOSTENA, URRIAREN 4KOA, KONTRATAZIO
PUBLIKOAREN AHOLKU-BATZORDEAREN OSOKO BILKURARENA****HELBURUA: EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO
NATURA-ONDAREA KONTSERBATZEKO LEGEAREN
AURREPROIEKTUA****I.- AURREKARIAK.**

Apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zen Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina, lege horretan (ekainaren 30eko 16/1994 Legean) egindako aldaketa guztiak jasotzen zituena.

Horrenbestez, nolabaiteko antzinasuna duen legea da, zeina garaietara egokitzen joan baita, harik eta gaiari buruzko estatuko legearen azken aldaketek lege berri bat onartzera behartu duten arte, aurreko planteamenduak gainditzeko (Natura Ondare eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legeaz ari gara, zeinaren aldaketak 2015ean eta duela oso gutxi, 2018ko uztailaren 20an, onartu baitira).

Bestalde, otsailaren 27ko 3/1998 Legeak, Euskal Herriko Ingurugiroa Babestekoak, baliabideen arloa nahiz ingurumen-politikako jarduketan zein tresnen antolamendua arautzen ditu. Haren II. Tituluan, zehazki I. Kapitulan, biodibertsitatearen gaia arautzen du, eta hori, definizioz, honako aurreproiektu honek lantzen duen natura-ondarearen kontzeptuaren barruan sartzen da. Lege hori indargabetzeko izapideak egiten ari dira, aurrerago ikusiko dugun bezala.

Gauzak horrela, lege honen izapidetzeari ekiten diogu; haren aurreproiektuari buruzko zenbait txosten eta alegazio egin dira, eta Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzak txostena egiteko eskatu zion batzorde honi, 2018ko irailaren 13an. Hona eskaera:



“Natura Ondarea Kontserbatzeko Legearen Aurreproiektuaren 88.3. artikulua gehitzen du natura-gune babestuek osotara edo zati batez haien lurralde-eremuen barruan hartzen dituzten toki-erakundeei besteei baino lehenago emango zaiela eremu horiek kudeatzeko eman beharreko zerbitzuen emakida. Sailaren txosten juridikoa egin ondoren duda bat sortu denez, hura argitzeko eskatzen dut”.

II. – ALDEZ AURREKO GOGOETAK

TXOSTENA IGORTZEKO ESKUMENA

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legeak 11. artikuluan xedatzen du nahitaezko txostenak eta kontsulta-organoen irizpenak izapide hori arautzen duten xedapenek ezarritako unean eta eran eskatuko direla.

Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak eskumena du aipatutako arauaren proiektuari buruzko txostena egiteko; izan ere, horrek eragina du kontratazio publikoan, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 27. artikulua a) letraren 1. apartatuan xedatutakoari jarraikiz.

«27. artikulua.- Aholkularitza-eginkizunak.

Aholkularitza-eginkizuna betetzean, hauek egitea dagokio Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeari:

a) Honako hauei buruz nahitaez informatzea:

1.- Kontratazio publikoaren alorreko edo haren eremuan eragiten dutenei buruzko xedapen orokorren proiektuak edo aurreproiektuak, Gobernu Kontseiluak edo hango sailburuek onartu beharrekoak».



Xedapen-proiektua denez, eta ez denez horren xedea sektore publikoko erakundeak sortzea edota Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko erakundeen egitura organiko eta funtzionalak arautzea, 116/2016 Dekretuaren 30. artikuluekin bat, txostena onartzeko eskumena Aholku Batzordearen Osoko Bilkurari dagokio.

III. – EDUKIA.

Legearen aurreproiektuak 7 titulu ditu, 106. artikulurekin; azken zatia 9 xedapen gehigarri, 8 xedapen iragankorrez, xedapen indargabetzaile batez eta amaierako 1 xedapenez osatuta dago. Azken bi horiek bina apartatu dituzte.

Laburbilduta, hau da tituluen edukia:

- I.- Xedapen orokorrak.
- II. Eskumen- eta antolamendu-araubidea
- III. Natura-ondarea ezagutzeko, planifikatzeko eta babesteko tresna orokorrak.
- IV. Natura-gune babestuak
- V. Basafaunaren eta basaflorearen espezieen babesa
- VI. Natura-ondarea kontserbatzeko sustapen-neurriak eta neurri ekonomiko-finantzieroak
- VII.- Ikuskatzea eta zehapen-araubidea

IV.- OHAR JURIDIKOAK

Aurreproiektuak jasotzen duen kontratazio publikoa (halakoa izanik aztergai duguna) laburki aipatu aurretik, komenigarria iruditu zaigu bereiztea lege honen eremu objektiboa eta Euskadiko ingurumen-administrazioari buruzko legean arautuko dena. Batzorde honek berriki egin du txoten bat haren aurreproiektuari buruz, zeina aztertzen ari garen aurreproiektuaren data berekoa baita (10/2018 txostena, uztailaren 26koa, Osoko Bilkurarena). Are gehiago, aztertzen ari garen aurreproiektuaren xedapen indargabetzailearen 2. apartatuak honako hau esaten duela kontuan hartuta:

«2. Indargabetuta geratzen da Euskal Herriko ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege orokorraren II. Tituluaren I. Kapituluak.

Bada, aipatutako 3/1998 Legea osorik indargabetzen da, izapidetzen ari den ingurumen-administrazioari buruzko legearen bidez. Horrenbeste, bigarrenik onartzen den legeak zuzendu beharko du bere xedapen indargabetzailea, lehendik onartzen den legearen bidez jada eginda egongo den indargabetzea berriz ez egiteko.

Izan ere, ematen duen arren ingurumen-administrazioari buruzko Legearen eta Natura-ondarea kontserbatzeko Legearen eremu batzuk konkomitanteak direla (besteak beste, eskumenen banaketaren gainean duten eragina, ingurumena babesteari buruzko zenbait kontu, Ingurumenaren Aholku Batzordearen araudia,...), eta egia bada ere araudi biak bakar baten baitan subsumitu ahal zirela, testu biak aztertuta, ulertu daiteke proiektu biek bi kontu desberdin lantzen dituztela eta bereiz daitezkeela, aurreko paragrafoan egindako oharra aintzat hartuta.

Gauzak horrela, Batzordearen txosten-eskaeran planteatutako gaia aztertzeari ekingo diogu, egiatan horixe baita aurreproiektuaren testuan kontratazioari buruz agertzen den aipamen bakarra.

Hau dio 88. artikulua (Garapen sozioekonomikorako programak):

«1. Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek garapen sozioekonomikorako programak ezarriko dituzte natura-gune babestuetako lurralde-eremuetako zein babeseko eremu periferikoetako herritarrentzat, beren eskumenen esparruaren barruan eta dauzkaten aurrekontu-baliabideen arabera, eta horretarako behar diren diru-laguntzak eta pizgarriak ezarriko dituzte. Natura Kontserbatzeko Aholku Batzordeak horren gaineko txosten bat egin beharko du aurretik.

2. Programok honako helburu hauek dituzte:

- a) Azpiegiturak sortu eta egoki diren zerbitzu- eta hornidura-mailak lortzea.
- b) Natura-baliabideak kontserbatzeko eskakizunekin bat datozen jarduerak babestea eta sustatzea, beharrezkoak diren konpentsazioen bidez.
- c) Bertako biztanleak natura-gunearen babesak eta kudeaketak sortutako jardueretan integratzea.
- d) Landako etxebizitzak birgaitu eta ondare arkitektonikoa kontserbatzea.



e) Babestutako natura-gunearen helburuekin zerikusirik duten jarduerak bultzatzea, kultura-, zientzia-, pedagogia- eta aisialdi-arlokoak.

3. Natura-gune babestuek osotara edo zati batez haien lurralde-eremuen barruan hartzen dituzten toki-erakundeei besteei baino lehenago emango zaie eremu horiek kudeatzeko eman beharreko zerbitzuen emakida”.

Aurreproiektuari buruzko txosten juridikoak jada eman zuen azken 3. apartatu horri buruzko iritzia; hauxe:

“Ez da zehazten nola aplikatuko den “lehentasunezko eskubide” hori; baina kontuan hartu beharko da hori egiterakoan, edo apartatu horri eustea ala ez planteatzerakoan, abenduaren 9ko 20/2013 Legeak, Merkatu-Batasuna Bermatzekoak, esaten duela eragile ekonomiko guztiek eskubide berberak izango dituztela lurralde nazional osoan eta agintari eskudun guztiei dagokionez, inolako diskriminaziorik egin gabe egoitzaren edo establezimenduaren arabera, eta jarduera ekonomikoak eskuratzeari edo gauzatzeari buruzko inolako xedapen orokorrak ezin izango dituela jaso baldintzarik edo betebeharririk, zeinen zuzeneko edo zeharkako ondorioa diskriminazioa baita, eragile ekonomikoaren establezimendua edo egoitza direla eta”.

Batzorde honek haratago jo behar duenez, ulertzen du bai zerbitzuen emakidak baita zerbitzu-kontratuak berak, edo beste edozein kontratazio publikoko jarduerak ere, ezin direla kontratazio publikoaren gaineko arautik kanpo utzi, bereziki indarrean dagoen azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuen Legeak, zeinaren bidez Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauen transposizioa egiten den Espainiako ordenamendu juridikora.

Ezinbestez bete beharrekoak dira, halaber, Europar Batasunak gai horri buruz emandako zuzentarauak, alegia, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB Zuzentaraua, emakida-kontratuei buruzkoa, eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/24/EB Zuzentaraua, Kontratazio publikoari buruzkoa, zeinak 2004/18/EE Zuzentaraua indargabetzen duen.

Horrenbestez, zerbitzuak kontratatzeke edo emateko edozein lizitaziotan, lehia askea eta ekonomiaren aldetik onuragarriena den eskaintza hautatzea dira



oinarrizko printzipioak, eta ezin izango da inolako lehentasuna ezarri esleipenean, hori egiteak oinarrizko printzipio horiek urratuko bailuke.

Hori guztia zehatz jasota dago Sektore Publikoaren Kontratuaren Legearen 1. artikuluan, zeinak honela baitio, hitzez hitz, 1. apartatuan:

«1. Lege honen xedea sektore publikoan egiten diren kontratuak arautzea da. Legeak, arauketa horren bidez, bermatu nahi du, batetik, kontratazioa printzipio hauen arabera gauzatuko dela: lizitazioetan parte hartzeko askatasunaren printzipioa, prozeduren gardentasunaren eta publizitatearen printzipioa, eta lehiakideen arteko diskriminaziorik ezaren eta tratu-berdintasunaren printzipioa; bestetik, aurrekontuaren egonkortasunaren eta gastuaren kontrolaren helburuari lotuta, ziurtatu nahi du obrak egiteko, ondasunak eskuratzeko eta zerbitzuak kontratatzeko diru-funtsak eraginkortasunez erabiliko direla, dauden premiak aldeztatik definituz, lehia askea babestuz, eta ekonomiaren aldetik onuragarriena den eskaintza hautatuz.»

Hala, bada, erabat beharrezkoa da aurreproiektuaren 88. artikulua 3. apartatua kentzea, osorik.

V.- ONDORIOAK

Horrenbestez, lerrootan iradokitako berridazketak aintzat hartzea espero duela, batzordeak lege-aurreproiektuaren aldeko irizpena ematen du.